

## **BILBOKO UDALAK BAT EGIN DU “ELKARLANEAN DIHARDUGU. PERTSONEN BIZITZAK HOBETZEN DITUGU” KANPAINAREKIN, LANKIDETZAKO ERAGILEEKIN BATERA**

• Sare sozialetako ekimen hau (H)BIAN 2030 Eraldaketa Sozialerako Hezkuntzarako Euskal Estrategiaren barruan kokatzen da.

• (H)ABIAN 2030 estrategian parte hartzen dute Garapenerako Lankidetzarako Euskal Agentziak (Elankidetzak), hiru foru aldundiek eta Euskal Autonomia Erkidegoko hiriburuetako hiru udalek, Euskal Fundoa-Euskal Autonomia Erkidegoko Tokiko Entitate Lankideen Elkarteak eta hainbat hezkuntza-zentrok eta GGKEek.

(Bilbo, 2020ko urriaren 31). - Bilboko Udalak bat egin du “*Elkarlanean dihardugu. Pertsonen bizitzak hobetzen ditugu*” kanpainarekin, zeina azaroaren 2tik 8ra gauzatuko baita sare sozialetan. Ekimen hau (H)BIAN 2030 Eraldaketa Sozialerako Hezkuntzarako Euskal Estrategiaren barruan dator, non Elankidetzak Garapenerako Lankidetzarako Euskal Agentziak, hiru foru aldundiek, Euskal Autonomia Erkidegoko hiru hiriburuetako udalek, Euskal Fundoa-Euskal Autonomia Erkidegoko Lankidetzako Tokiko Entitateen Elkarteak eta hainbat hezkuntza-zentrok eta GKEek parte hartzen baitute. Gainera, kanpaina horrekin bat egin du Euskadiko GGKEen koordinatzaileak ere.

Bilbok Euskadi osoko kanpaina honekin bat egin izana, *Itziar Urtasun* Lankidetzako, Bizikidetzako eta Jaietako Saileko zinegotziaren arabera, “*zor zaio koronabirusak agerian jarri izanari planetan dagoen desberdintasun itzela*”. Desberdintasun hori agerian jartzen da eskuak garbitzeko neurriari berari erreparatze soilarekin; zinegotziak azaldu duenez, “*eskuak garbitzeak, zeina hasieran gomendio izan baitzen eta ondoren agindu, agerian jarri du gizateriaren zati handi batek ez duela urik, eta sinesgaitz gertatzen zaie milioika pertsonari, Afrikan edo Hego Amerikan herri guztiz behartsuetan, faveletako txaboletan eta bazterretako auzoetan bizirik ez baitaude ez azpiegitura sanitariorik, ez urik. Euskadiko Garapenerako Lankidetzak bereziki jarduten da uraren eta saneamenduaren arloetan, egoera hori hobetzen saiatzen da milioika pertsonentzat, jakina delako garbitasuna eta osasuna elkarren eskutik doazela*”.

Bilboko Udalak eutsi egiten dio nazioarteko lankidetzaren konpromisoari eta ura, saneamendua, emakumeen boteretzea, hezkuntza eta tokiko boterea sendotzea bezalako sektoreen aldeko konpromisoari, eta udal aurrekontuaren % 54 bideratzen du munduan milaka pertsonaren egoera hobetzerako, zeintzuk gizarte ongizateko parametro oso txikietatik abiatzen baitira.

Kanpaina sustatzen duten entitateek adierazi dutenez, “*COVID-19 pandemiak agerian jarri du ezen, gaur inoiz baino gehiago, elkarrekin eman behar diegula erantzuna mundu osoko desafioei. Munduan, elkarren mendeko gara denok, eta erronkak ere berberak ditugu denok, hala nola klimaren aldaketa, desberdintasunak edo pandemia bera, eta uste dugu garapenerako lankidetzak balio berezia duela desafio horiei erantzuteko*”.

Sare sozialetako ekintza honekin, herritarrak gonbidatzen ditugu berrinterpretatu ditzaten egungo krisiaren inguruan dituzten esperientziak garapenerako lankidetzaren begiradatik, eta pentsa dezatela nola eragiten duen beste leku batean gertatzen denak bakoitzaren eguneroko bizimoduan eta jendartearen balioetan.

[#TransformamosLasVidas](#)

[#CooperaciónVasca.](#)

## EL AYUNTAMIENTO DE BILBAO SE UNE A LA CAMPAÑA “COOPERAMOS. MEJORAMOS LAS VIDAS DE LAS PERSONAS” JUNTO A AGENTES DE COOPERACIÓN VASCOS

- Esta iniciativa en redes sociales se enmarca en la Estrategia Vasca de Educación para la Transformación Social (H)ABIAN 2030.
- En (H)ABIAN 2030 participan la Agencia Vasca de Cooperación para el Desarrollo-Elankidetza, las tres Diputaciones Forales y los tres ayuntamientos de las capitales de la Comunidad Autónoma Vasca, Euskal Fundazioa-Asociación de Entidades Locales Vasca Cooperantes, y varios centros educativos y ONGD.

(Bilbao, 31 de octubre de 2020).- El Ayuntamiento de Bilbao se une a la campaña “**Cooperamos. Mejoramos las vidas de las personas**”, que se llevará a cabo del 2 al 8 de noviembre en las redes sociales. Esta iniciativa se enmarca en la **Estrategia Vasca de Educación para la Transformación Social (H)ABIAN 2030**, donde participan la Agencia Vasca de Cooperación para el Desarrollo-Elankidetza, las tres Diputaciones Forales y los tres ayuntamientos de las capitales de la Comunidad Autónoma Vasca, Euskal Fundazioa-Asociación de Entidades Locales Vasca Cooperantes, y varios centros educativos y ONGD. Además, a esta campaña se ha sumado la Coordinadora de ONGD de Euskadi.

La adhesión de Bilbao a esta campaña a nivel de Euskadi, según la Concejala de Cooperación, Convivencia y Fiestas, **Itziar Urtasun**, “*se debe a que el Coronavirus ha puesto de manifiesto la profunda desigualdad que existe en el planeta*”. Esa desigualdad se pone en evidencia con el simple hecho del lavado de manos, en este sentido, la Concejala ha explicado que “*la sugerencia y luego la orden de lavarse las manos, evidencia que gran parte de la humanidad carece de agua y crea incredulidad entre millones de personas que viven en villas miserias, chabolas favelas y barrios periféricos de África o Latinoamérica por la falta de infraestructura sanitaria y agua. La Cooperación al Desarrollo vasca, muy vinculada a los sectores de agua y saneamiento, procura la mejora de esta situación entre miles de personas ya que se sabe que limpieza y salud van juntas*”.

El Ayuntamiento de Bilbao mantiene el compromiso con la Cooperación Internacional y con los sectores de agua, saneamiento, empoderamiento de las mujeres, educación y fortalecimiento del poder local, y dedica un 0,54 % de su presupuesto municipal a mejorar la situación de miles de personas en el mundo que parten de parámetros de bienestar social muy bajos.

Desde las entidades promotoras de esta campaña señalan que “*la pandemia de la COVID-19 ha puesto de manifiesto que, hoy más que nunca, la respuesta a los desafíos globales ha de ser conjunta. Vivimos en un mundo interdependiente con retos comunes como son el cambio climático, las desigualdades o la propia pandemia, y creemos que la cooperación para el desarrollo tiene un valor diferenciador para dar respuesta a esos desafíos*”.

Con esta acción en redes sociales, se invita a la ciudadanía a que reinterprete sus experiencias sobre la crisis actual desde la mirada de la cooperación, y a pensar que lo que ocurre en otro lugar tiene repercusiones en su cotidianidad y en los valores de la sociedad.

[#TransformamosLasVidas](#)

[#CooperaciónVasca.](#)